Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urriaren 25a, osteguna
206
Jueves, a 25 de octubre de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Azpeitiko «Alde Zaharra» 1. HEn kokatutako eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa.*

Azpeitiko Udal Batzarrak, 2018ko uztailaren 3an «Alde Zaharra» 1. Hen kokatutako eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari hasiera onarpena ematea onartu zuen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko irailaren 7an argitarauta, 173 zb.).

Arauzko jendaurreko informazio epean ez da erreklamazio edo oharpenik izan. Hori dela eta, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49 artikuluak xedatzen duenaren arabera, orain artean behin behineko zen akordioa behin betikoa bihurtuko da.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzeako den legeria:* urriaren 1eko 39/2015 legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (123 eta 124 artikuluak), eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumena arautzen duena (46. artikuloa).

I. ERANSKINA

*Azpeitiko «Alde Zaharra» 1. HE-n kokatuak dauden eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea.*

ARRAZOIEN AZALPENA

Dagokigun Ordenantza honen xedea da Azpeitiko herrian etxebizitzen fatxadak birgaitzeko lanak egiteko diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, lehia-konkurrentziako erregimenean eta Azpeitiko Diru-laguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betetzeko.

Ordenantzaren azken helburua da sustapen pribatua bultzatzea Azpeitiko Hirigune Historikoan dauden etxeen fatxadak birgaitu eta pintatzeko, eta hori guztia, Toki Entitate honek azken urteotan egin dituen jarduketa desberdinen bidetik.

I. XEDEA

*1. artikulua. Xedea.*

Diru-laguntza hauen helburua da Azpeitiko «Alde Zaharra» 1. HEn kokatuak dauden eraikinetako fatxadak pintatu eta birgaitzeko lanak finantzatzeko diru-laguntzak ematea.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Modificación de la Ordenanza reguladora de concesión de subvenciones para la rehabilitación de fachadas de los edificios situados en el AU 1 «Alde Zaharra» de Azpeitia.*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 3 de julio de 2018, acordó aprobar con carácter inicial la modificación de la Ordenanza reguladora de concesión de subvenciones para la rehabilitación de fachadas de los edificios situados en el AU 1 Alde Zaharra de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 173 de 7 de septiembre de 2018).

Transcurrido el periodo reglamentario de exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones en virtud de lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se eleva a definitivo el acuerdo hasta ahora provisional.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Y ello sin perjuicio de que pueda ejercitarse cualquier otro recurso que se estime procedente.

*Legistación aplicable:* artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

ANEXO I

*Ordenanza reguladora para la concesión de ayudas de rehabilitación de fachadas en edificios situados en el AU 1 «Alde Zaharra» de Azpeitia.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ordenanza tiene por objeto la aprobación de las bases que regularán el otorgamiento de las ayudas para realizar obras de rehabilitación de fachadas en el municipio de Azpeitia, en régimen de concurrencia competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

Tiene por finalidad última fomentar la promoción privada de obras de rehabilitación y pintado de fachadas del Caso Histórico de Azpeitia, todo ello, de conformidad con distintas actuaciones que por esta Entidad Local se han llevado a cabo a lo largo de estos últimos años.

I. OBJETO

*Artículo 1. Objeto.*

Esta subvención tiene por objeto la concesión de subvenciones para financiar obras de pintado y rehabilitación de las fachadas de los edificios situados en el AU 1 «Alde Zaharra» de Azpeitia.

EK\CV GAO-I-2018-07034

*2. artikulua. Organo eskuduna.*

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Azpeitiko Udalbatza Osoa da, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluak dioenaren arabera.

*3. artikulua. Ezarri beharreko araudia.*

Diru-laguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

— Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

— Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

— Azpeitiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 101. zk., 2012ko maiatzaren 29koa).

*4. artikulua. Onuradunak.*

Onuradun izan ahalko dira Azpeitiko Herrigune Zaharrean kokatua dagoen edozein eraikinetako jabeak edota Jabekide Elkartearen legezko ordezkariak.

Era berean, diru-laguntza horiek eskatu ahal izango dituzte etxebizitzen jabe eta erabiltzaileek, eraikinaren fatxadaren osotasunean aritzeko ahalmena badute, behe-solairuak sartu gabe.

Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Azpeitiko Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzaileetako 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu beharko da (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 101. zk., 2012ko maiatzaren 29koa).

*5. artikulua. Ezarpen eremua. Eraikinaren baldintzak eta lanak egiteko baldintzak.*

— Ezartzeko eremua:

5.1. Azpeitiko Antolamenduaren Plan Orokorraren «Alde Zaharra» 1. HEn baitan kokatuak dauden eraikinentzat dira diru-laguntza hauek (eremuaren plano bat dator erantsita II. eranskin moduan).

— Eraikinak bete beharrekoak:

5.2. «Alde Zaharra» eremuan kokatua egoteaz gain, eraikinak honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Ezingo du egon antolamenduz kanpo edo aurri-egoeran.

b) 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna izan beharko du.

c) Udal honetan aurkeztutako Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) izan beharko dute, betiere eraikinak 50 urte baino gehiagoko antzinatasuna baldin badu.

d) Laguntzetan sartuko diren lanek udal baimena izan beharko dute.

e) Lanak eraikinaren fatxada osoan egin beharko dira, eta salbuespen moduan, lan horietatik kanpo geratu ahal izango dira eraikinaren behe-solairuei dagozkien guneak.

f) Fatxadak bide publikoetatik ikusten direnak izan beharko dira.

g) Lanek ez dute, inolaz ere, eraikinaren bolumenaren igoerarik sortuko, ezta egiturako elementuei eragingo ere.

— Lanak burutzeko betebeharrak:

5.3. Egin behar diren lanak honakoen artean sartzen direnak izango dira:

*Artículo 2. Órgano competente.*

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Pleno municipal, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

*Artículo 3. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

— Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

— Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

— Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa, de 29 de mayo de 2012, n.º 101).

*Artículo 4. Beneficiarios.*

Podrán ser beneficiarios los propietarios o los representantes legales de las Comunidades de Vecinos de cualquier edificio existente en el Casco Antiguo de Azpeitia.

Asimismo podrán acceder a las ayudas los propietarios y usuarios de viviendas con potestad para actuar en la totalidad de la fachada del inmueble, sin incluir las plantas bajas.

En todo caso, para la consideración de beneficiario, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Azpeitia (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 101, de 29 de mayo de 2012).

*Artículo 5. Ámbito de aplicación. Requisitos de la edificación y de ejecución de la obra.*

— Ámbito de aplicación:

5.1. Las ayudas están destinadas a los edificios existentes dentro del ámbito AU 1 «Alde Zaharra» del Plan General de Ordenación de Azpeitia (se adjunta como anexo II un plano del ámbito).

— Requisitos de la edificación:

5.2. Además de encontrarse en el ámbito de «Alde Zaharra», la edificación deberá cumplir con las condiciones siguientes:

a) No encontrarse en fuera de ordenación o en situación de ruina.

b) Deberá contar con una antigüedad mayor de 10 años.

c) Deberá contar con la Inspección Técnica de Edificios (ITE) presentada en este Ayuntamiento, siempre que el edificio tenga una antiguedad superior a 50 años.

d) Las obras objeto de ayudas deberán contar con licencia municipal.

e) Las obras se realizarán sobre la totalidad de la fachada del edificio, pudiendo exceptuarse solamente, las zonas correspondientes a las plantas bajas de la edificación.

f) Las fachadas deberán ser visibles desde las vías públicas.

g) Las obras no supondrán en ningún caso un aumento de volumen del edificio ni afectarán a elementos estructurales.

— Requisitos de la ejecución de la obra:

5.3. Las obras a realizar deberán estar incluidas entre las siguientes:

a) Eraikinaren kanpoaldeko paramentu bertikalak mantentzeko eta konpontzeko lanak, halanola fatxaden pintaketa edo garbiketa.

b) Erlaitz, balkoi, begiratoki, kanpoko barandatxo eta zurgintza-lanak mantentzeko, konpontzeko edo aldatzeko lanak, fatxada guztian.

c) Teilatu-hodiak eta zorrotenak mantendu eta konpontzeko lanak.

d) Fatxadan dauden instalazioetako kableak kendu edo fatxadan izkutatzeko lanak.

e) Eraikuntzen efizientzia energetikoa eta isolamendua hobetzeko lanak (fatxadan SATE edo antzeko sistemak ezartzea).

5.4. Diru-lagutnza bat jasotzen denean, ezingo da berriro laguntzarik eskatu, fatxada beretarako, 5 urteko epean.

*6. artikulua. Baztertzeak.*

Espresuki baztertuak geratuko dira udal-baimena lortuko ez duten lanak, eta 5. artikuluan espresuki zehaztuak datozen betebeharrak betetzen ez dituztenak.

II. ESKAERAK

*7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.*

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 6. artikuluan jasoak datozenez gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

Izaera orokorrez:

— Laguntza emateko oinarrian zehaztu zen helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.

— Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Azpeitiko Udalari.

— Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri ematea.

Bereziki:

— Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak onartzea.

— Jasotako diru-laguntza, eskarian adierazitako fatxada zehatz horiek pintatu edo konpontzeko erabiltzea.

— Lizentzietan ezarriko diren baldintzetan lanak egiteko beharrezko diren gestio guztiak egitea.

— Udal honek eskatuko dizkion agiri guztiak aurkeztea.

— Eskatzailearen kontura eta bere ardurapekoak izango da lanak egiterakoan hartu beharko diren segurtasun-neurri guztiak hartzea.

— Halaber, udal lizentziarik ez duten errotulu guztiak kendu beharko dira fatxadatik.

*8. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua.*

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonek, deialdian jasotakoari jarraiki, Azpeitiko Udalaren bulegoetan (Plaza Nagusia 5, 20730 Azpeitia) eskura daitekeen eredu ofizialaren arabera betetako eskaria aurkeztu beharko dute.

— Dokumentazioa:

Eskaerak deialdi honi atxikita datorren ereduari jarraiki aurkeztu beharko dira.

Eskatzaileak honako agiriak ere aurkeztu beharko ditu:

a) Ereduaren araberako eskaria.

b) Eskaera egin duen pertsonaren nortasun agiriaren fotokopia.

a) Obras de mantenimiento y reparación de paramentos verticales exteriores del edificio, como pintura o limpieza de fachadas.

b) Obras de mantenimiento, reparación y sustitución de cornisas, balcones, miradores, carpinterías y barandillas exteriores, en toda la fachada.

c) Obras de mantenimiento y reparación de canalones y bajantes.

d) Obras para la eliminación o empotramiento de los cables de instalaciones existentes en las fachadas.

e) Trabajos de mejora de la eficiencia energética y aislamiento (implantación del sistema SATE o similar).

5.4. Una vez concedida una subvención no podrá solicitarse nuevamente ayuda para las mismas fachadas en el plazo de 5 años.

*Artículo 6. Exclusiones.*

Quedarán expresamente excluidas las obras que no obtengan licencia municipal y aquellas solicitudes de ayuda que no cumplan los requisitos expresamente establecidos en el artículo 5.

II. SOLICITUDES

*Artículo 7. Obligaciones del beneficiario.*

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y el artículo 6 de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia, son obligaciones del beneficiario:

Con carácter general:

— Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.

— Deber de aportar al Ayuntamiento de Azpeitia cuanta información complementaria les sea solicitada.

— Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

Especialmente:

— Aceptar las condiciones fijadas en estas bases.

— Utilizar la subvención para el pintado o reparación de las fachadas objeto de ayuda.

— Realizar las gestiones necesarias para la ejecución de las obras, con las condiciones que se fijen en las licencias.

— Aportar la documentación que le sea solicitada por este Ayuntamiento.

— Serán a cuenta y responsabilidad del solicitante la adopción de todas las medidas de seguridad necesarias durante la ejecución de los trabajos.

— Asimismo, deberán retirarse los rótulos existentes en la fachada que carezcan de licencia municipal.

*Artículo 8. Presentación de solicitudes: plazo y modo.*

Quienes deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial existente en las oficinas del Ayuntamiento de Azpeitia (Plaza Nagusia 5, 20730 Azpeitia) en la forma establecida en la convocatoria.

— Documentación:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña a esta convocatoria.

El solicitante deberá aportar la siguiente documentación:

a) Solicitud normalizada.

b) Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

EK\CV GAO-I-2018-07034

c) Jabekide Elkartearen IFZaren fotokopia.

d) Lan horiek egitea erabaki zen bileraren akta, bai eta presidentearen izendapenarena ere.

d) Fatxaden argazkia.

e) Egin nahi diren lanen aurrekontua.

f) Eskatzailearen bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatuko duen dokumentua.

g) Eskaria eraikinaren jabe bakarrak egiten badu, jabetzaeskrituraren kopia edo Jabetzaren informazio-ohar soila. Horrez gain, jabearen baimena, idatziz, jarduteko ahalmena duten erabiltzaileak badira.

h) Administrazioari dagokionez, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzari dagozkionetan egunera dagoela dioen egiaztagiria. Eskaria 3.000 € baino gutxiagokoa baldin bada, zinpeko aitorpena aurkeztu ahal izango da.

i) Zinpeko aitorpena, esanaz beste diru-sarrera batzuk eta/edo beste erakunde batzuei egindako diru-laguntza eskariak badaudela dioena, balegokio.

— Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamunean hasi eta 2016ko azaroaren 30ean amaituko da. Eskatzen den dokumentazio guztia, behar bezala beteta, Azpeitiko Udaleko bulegoetan jasotzen den hurrenkera edo ordenaren arabera erantzungo zaie eskabideei, edo dauden diru-laguntzak bukatu arte.

Hurrengo epealdi batzuetan, urtarrilaren 1etik azaroaren 30era arte izango da zabalik diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea.

*9. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu, edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik aurrera, antzemandako huts horiek konpon ditzaten.

Emandako epe horretan ez badira aurkitutako akats horiek konpontzen, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 30/1992 Legeko 71. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. DIRU-LAGUTZAK EMATEA

*10. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagun daitekeen zenbatekoaren % 25ekoa izango da, eta, gehienez ere, 3.000 euro fatxada bakoitzeko.

Plaza Nagusira duten fatxadentzat obraren aurrekontuaren % 50eko laguntza aurreikusi ahal izango da, gehienez 6.000 euroko kopuruarekin.

Diru-laguntzaren kopurua zehazterakoan, diruz laguntzeko gastutzat joko dira lanak egikaritzean sortutako gastuak eta ordainsari teknikoek sortutako gastuak; baina zergak, tasak eta beste zeinahi ordain salbuetsita.

*11. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.*

Dagokion diru-laguntza eman aurretik hura ematerakoan adierazi zen helburua bete dela frogatu beharko da.

Diru-laguntza ordainketa bakarrean burutuko da, oinarri hauen 12. artikuluan adierazitako dokumentazio zurigarria aurkeztu ondoren, eta behin Udalak xedea bete dela egiaztatu eta Udal Zerbitzu Tekinkoen aldetik azterketa eta aldeko baliozpena egin ondoren.

Diru-laguntzen ordainketa bakoitza bankuko transferentzia bitartez ordainduko da elkarte edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

c) Fotocopia del CIF de la Comunidad de Propietarios.

d) Fotocopia del acta de la Junta en la que se acuerde realizar las obras, así como del nombramiento del presidente.

d) Fotografía de las fachadas.

e) Presupuesto de las obras a realizar.

f) Documento que acredite la titularidad de la cuenta bancaria del solicitante.

g) Si la petición la realiza el propietario único del edificio, copia de la escritura de la propiedad o nota simple informativa de la Propiedad. Además, la autorización por escrito del propietario, en los casos de ser usuarios con potestad de actuar.

h) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración. En caso de que la solicitud sea inferior a 3.000 € podrá presentar una declaración jurada.

i) Declaración Jurada en el que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones.

— Plazo de solicitud:

El plazo de presentación de solicitudes comienza al día siguiente de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y termina el 30 de noviembre de 2016, siendo atendidas según el orden en que se hayan recibido con la documentación completa, y debidamente cumplimentada, en las oficinas del Ayuntamiento de Azpeitia o hasta el agotamiento de los fondos disponibles.

En futuros ejercicios, el plazo de presentación de solicitudes será desde el 1 de enero, hasta el 30 de noviembre de cada año.

*Artículo 9. Subsanación de defectos.*

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a los interesados un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 71 de la Ley 30/1992.

III. CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 10. Cuantía de las ayudas.*

La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 25 % de la cantidad subvencionable, con un límite máximo de 3.000 euros por fachada.

Los edificios cuyas fachadas afrontan a Plaza Nagusia, podrán obtener una ayuda del 50 % del presupuesto de obras con un máximo de 6.000 euros por edificio.

Será gasto subvencionable al objeto de determinar el importe de la subvención, los gastos de ejecución de las obras y los honorarios técnicos, exceptuando impuestos, tasas y cualquier otro tributo.

*Artículo 11. Abono de las ayudas.*

El abono de la subvención se realizará, previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

El pago de la subvención se efectuará mediante un único pago, previa presentación de la documentación justificativa enumerada en el artículo 12 de las presentes bases y comprobado su cumplimiento por el Ayuntamiento tras su análisis y valoración favorable de los Servicios Técnicos Municipales.

Cada abono de la subvención concedida se realizará mediante transferencia bancaria, en la cuenta corriente señalada por la entidad o persona beneficiaria.

EK\CV GAO-I-2018-07034

*12. artikulua. Frogagiriak.*

Izaera orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Azken fakturak, behar bezala beteta, eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak.

b) Administrazioarekin izan daitezkeen Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga betebeharrak betetzerakoan egunera egotearen egiaztagiria.

c) Diruz lagundu diren lanak finantzatzeko jaso diren beste diru-sarrera edo laguntza guztien zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria barne.

Behin dokumentazio zurigarria aurkeztu ondoren, eta udal lizentzia badela eta bertan jarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek dagokion egiaztatze-txostena igorriko dute, oinarrien 11. artikuluan adierazitakoari jarraiki eta dagokion ondorioetarako.

— Agiriak aurkezteko epea:

Orokorrean, artikulu honetan zerrendatutako egiaztagiriak, obra amaitu eta gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

Epe hori luzatu ahal izango da, onuradunak bere arrazoiak azalduz hala eskatzen badu.

Onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkezten, edota Ordenantza hauetan adierazitako beste bete beharrak betetzen ez baditu, Azpeitiko Udalak diru-laguntzak emateko ordenantza arautzaileko 16. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

*13. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateragarritasuna.*

Araudi honetan datozen laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo diru-laguntza lortzearekin, helburu horretarako beste edozein Administrazio Publikok emandakoak badira ere, baina inoiz ere ezingo da gainditu egin diren lanen kostu osoa.

Emandako diru-laguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, Udalak diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu ahal izango du, diruz lagungarria den gehieneko zenbatekora egokitu arte.

*14. artikulua. Finantzazioa.*

Fatxadak birgaitzeko lanak gauzatzeko diru-laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Azpeitiko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira.

Diru-laguntzak emateko, Udalak dagokion aurrekontu partida bideratuko du ekitaldi bakoitzeko, eta aurrekontu horren zenbatekoa izango da Azpeitiko Udalak emango duen gehieneko kopurua.

IV. PROZEDURA

*15. artikulua. Balorazio irizpideak.*

Diru-laguntzak emateko irizpide nagusia eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, beti ere, honako Ordenantzan eskatzen diren baldintzak betetzen badira eta aurrekontuan dirurik badago.

Era berean, arrazoiak adieraziz diru-laguntza ukatu ahal izango da, edo udal lizentzia eskuratua ez duten errotuluak fatxadatik kentzeari baldintzatu ahal izango zaio.

Ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuan behar beste aurrekontu-krediturik ez badago, diru-laguntza jasotzetik arrazoi horregatik baztertuak izan diren eskatzaileak hurrengo ekital-

*Artículo 12. Documentación justificativa.*

Con carácter general, las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de la documentación justificativa que contendrá:

a) Facturas finales, debidamente cumplimentadas, así como justificantes de abono de las mismas.

b) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado las obras subvencionadas, con indicación del importe y su procedencia.

Una vez presentada la documentación justificativa y haber comprobado que se dispone de licencia municipal y se han cumplido las condiciones impuestas en la misma, los Servicios Técnicos Municipales emitirán el correspondiente informe de comprobación a los efectos de lo dispuesto en el artículo 11 de las bases.

— Plazo de justificación:

Con carácter general, la documentación justificativa relacionada en este artículo deberá presentarse en el plazo máximo de tres meses desde la finalización de la obra.

Dicho plazo, podrá ser prorrogado, previa solicitud motivada del beneficiario.

El incumplimiento de la presentación de la documentación a que se refiere en el apartado anterior o del resto de las obligaciones contempladas en la presente Ordenanza, tendrá los efectos previstos en el artículo 16 de la Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas del Ayuntamiento de Azpeitia.

*Artículo 13. Concurrencia con otras ayudas.*

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de las obras realizadas.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el Ayuntamiento podrá reducir la cuantía de la subvención concedida hasta ajustarlo al máximo de la cuantía subvencionable.

*Artículo 14. Financiación.*

Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas para la realización de obras de rehabilitación de fachadas procederán de los correspondientes créditos presupuestarios consignados al efecto en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Azpeitia.

El Ayuntamiento dispondrá para cada ejercicio una partida correspondiente con el objeto de conceder las ayudas, y las mismas no sobrepasarán la partida destinada a ello por el Ayuntamiento de Azpeitia.

IV. PROCEDIMIENTO

*Artículo 15. Criterios de valoración.*

El criterio básico para el otorgamiento de la subvención será el orden cronológico de presentación de solicitudes, siempre que se reúnan todos los requisitos que se exigen en la presente Ordenanza y mientras exista cobertura presupuestaria.

Asimismo, podrá denegarse motivadamente la subvención o condicionar la misma a la retirada de rótulos existentes en la fachada que carezcan de licencia municipal.

En el supuesto de que no hubiere suficiente crédito presupuestario en el presupuesto municipal de cada ejercicio, los/las solicitantes que queden excluidos/as por tal motivo, y cumplan

diko diru-laguntzen onuradun izan ahalko dira, honako araudia betetzen badute, aurreko paragrafoan aipatutako aukeraketa irizpideei jarraiki.

*16. artikulua. Prozedura.*

— Eraketa eta proposamena:

Eskaerak udal zerbitzu teknikoek aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta dagokion egiaztatze txostena igorriko dute, ebazteko organo eskudunari ebazpen-proposamena eginez.

— Ebazpen proposamena:

1. Diru-laguntzen ebazpen proposamena interesatuei jakinaraziko zaie, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

2. Aurkeztutako alegazioak –aurkeztuko balira– aztertu ondoren, behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo da. Onartzearen aldekoa bada, onuradunak bete behar guztiak bete eta dagokion gastuarekin jarduera gauzatu dela egiaztatzen duten justifikazio agiri guztiak aurkeztu ondoren soilik onartuko da behin betiko ebazpena.

— Behin betiko ebazpena:

1. Proposamen ebazpena egin ondoren, Alkatetzak prozedura ebatziko du ebazpen arrazoituaren bidez, eta, oinarrietan ezarritakoarekin bat, erabakiaren funtsak adieraziko dira jardunbidean.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.

3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da diru-laguntzaren eskaera aurkezten den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balitz emango, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko era zehaztuko dira.

## V. DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

*17. artikulua.*

Azpeitiko Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Azpeitiko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

## VI. ARGITARA EMATEA

*18. artikulua.*

Azpeitiko Udalaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko dira emandako diru-laguntzen zerrenda, horiek jasoko dituzten onuradunak eta jaso diren diru-kopuruak.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

la presente normativa, podrán ser incluíods como beneficiarios/as en el siguiente ejercicio, atendiendo a los criterios de selección antes señalados.

*Artículo 16. Procedimiento.*

— Instrucción y propuesta:

Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas los servicios técnicos municipales que emitirán el correspondiente informe de comprobación que incluirá una propuesta de resolución al órgano competente.

— Propuesta de resolución:

1. Se realizará la notificación de la propuesta de resolución a las personas interesadas, concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

2. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará la propuesta de resolución definitiva. En el caso de ser estimatoria, la resolución definitiva se aprobará únicamente, después que el beneficiario haya cumplido con todas las obligaciones y haya presentado la totalidad de la documentación justificativa que acredite la realización de la acción subvencionable y el gasto correspondiente.

— Resolución definitiva:

1. Una vez emitida la propuesta de resolución, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses desde la fecha de solicitud. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

## V. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 17.*

El Ayuntamiento de Azpeitia podrá requerir a los beneficiarios la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

Los beneficiarios de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Azpeitia en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

## VI. PUBLICIDAD

*Artículo 18.*

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia y en el tablón de anuncios del mismo.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases reguladoras de la concreta subvención.

EK\CV GAO-I-2018-07034

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

*19. artikulua.*

Oinarri hauek ulertzerakoan sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea Estrategia eta Hirigintza Batzorde Berriemaileari dagokio.

VII. ERREKURTSOAK

*20. artikulua. Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epearen barruan, hura onartu duen organo eskudun berean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan. Epeak oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

Azpeitia, 2018ko urriaren 19a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (7034)

VI. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES

*Artículo 19.*

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases, será resuelta por la Comisión informativa de Estrategia y Urbanismo.

VII. RECURSOS

*Artículo 20. Recursos.*

Contra las presentes bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

Azpeitia, a 19 de octubre de 2018.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (7034)

EK\CV GAO-I-2018-07034